

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

77 ikastetxek jasoko dute 2018-19 ikasturtean berrikuntza proiektuak garatzeko diru-laguntza

*Irakasleen trebakuntza iraunkorrerako planean jasota daude laguntzak,
gehienez 1000 eurora artekoak*

Astelehena, 2018.eko uztailak 2

Nafarroako Foru Erkidegoko [77 ikastetxek](#) jasoko dute gehienez ere 1000 euroko diru-laguntza hezkuntza berrikuntza proiektuak egiteko, irakasleen trebakuntza iraunkorrerako 2018-19 planaren baitan. Guztira 96 ikastetxe aurkeztu dira, 86 publiko eta 10 itunpeko.

Aukeratutako proiektuek proposamen pedagogiko berriak eta aldaketa bat proposatu beharko dute hobetu nahi duten arloan. Horretarako hipotesi bat proposatu beharko dute eta berau garatu beharko dute ikerketa metodo zientifikoak jarraituz. Era berean, aldaketa transferitu ahal izatea gainerako ikastetxeetara sustatu beharreko ezaugarria izango da.

Ekimenak 2019ko maiatzaren 31 baino lehen amaitu beharko dira eta hurrengo lerroentako baten oinarritu beharko dira: pedagogia aktiboak sustatzea ikasleen gaitasun adierazgarrienak garatzeko; proiektuetan oinarritutako irakasle kolaboratiboan Lanbide heziketako irakasleentzat; edo xake hezigarria gehitzea tresna didaktiko gisa. Era berean, deialdi honetan gehitu dira eleaniztasuna sustatzeko proiektuak, batez ere ahozko gaitasuna sustatzekoak; arlo guztietan euskaraz aritzeko euskararen sustapena D eredu ikasleen artean; ekintzailtza eta ardura soziala; ingurumena eta jasangarritasuna; edo bitza-eredu osasungarriak sustatzea.